



LIDE AMILIBIA
BERGARETXE
GIZARTE POLITIKETAKO
SAILBURUORDEA
EUSKO JAURLARITZA

MIGRAZIORAKO EUSKAL ITUN SOZIALA ETA EUSKARA

Migraziorako Euskal Itun Soziala 2019ko azaroaren 30ean aurkeztu zen, eta alderdi eta gizarte-erakunde askok bat egin dute harekin dagoeneko. Itunaren testuak ez du hertsiki zehazten nola antolatu behar den immigrazioa euskarara edo euskara immigrazioa. Itunaren helburuak izaera integrala du, eta dimentsio arauemaile orokorrak jasotzen ditu.

Migraziorako Euskal Itun Sozialak honako premisa hau du abiapuntu: immigrazioa, Euskadin, egiturazko errealitate bat da. Etorkizunean etorkinak ezinbestean Euskadiren parte izango direla ere onartzen du.

Itunak gizarte-errealitate berri bat aitortzea dakar berekin, gero eta kudeaketa konplexuagoa eskatzen duena. Izan ere, migrazioa gero eta askotarikoagoa da, eta kontuan hartu beharreko aldagai gehiago ditu. Hala:

1. Egon badaude jatorri migratzailea izanik Euskadin jaio diren biztanleak, baina atzerritar izaten jarraitzen dute oraindik ere.
2. Atzerrian jaiotako biztanleen beste multzo handiago bat Espainian nazionalizatu da jada,
3. Eta, azkenik, multzo handiena atzerrian jaio eta atzerritar izaten jarraitzen dutenek osatzen dute.
4. Horrez gain, errefuxiatuen, iragaitzako migratzaileen eta bidaiderek gabeko adingabe eta gazte atzerritarren (BGAA/BGGA) kopuruak txikiagoak dira, baina adierazgarriak.

Oso egoera bereziei eta zehatzei dagokienez, Ituna testu arauemailea eta deklaratioa dela gogoratzea komeni da. Xedatzen du, baina ez du behartzen. Ez da tratatu bat. Ados jarri nahi izate bat da. Hasierra berri bat jartzea da; aldarrikatzen dugun hori eraiki nahi dugula iragartzea. Egintza performatibo bat da. Ikuspegi bat da.

Itunak aniztasunaren kudeaketarekin lotutako alderdi guztiak indartzen ditu, hizkuntza-aniztasuna barne; eta modu estrategikoan sustatzen du euskararen sustapena, gure hizkuntza eta Euskadiko jatorrizko hizkuntza den aldetik.

Hizkuntzen kudeaketa ez da Itunaren ondorio bat, baina Eusko Jaurlaritzak hasieratik martxan jarritako konpromisoa eta kudeaketa indartzen ditu Itunak; Eusko Jaurlaritzak esku hartzeko dituen bide ugarien bitartez egin izan du hori, eta, batez ere, Hezkuntza Sailaren bitartez, bai eskolaren bitartez, bai helduen hezkuntzaren bitartez.

Ikuspegi horretatik, 2020an, geure buruari ezin diogu galdetu zer den egin beharreko lehenengo gauza. Izan ere, XXI. mendearen hasieratik gaude bide horretan. Honako galdera hauek beharrezkoagoak dira: Egiten ez dugun zer egin behar dugu? Nola hobetu dezakegu egiten dugun hori?

Itunaren oinarrian konpromiso bat dago: immigrazioa euskal gizartearen zati bat dela onartzea. Eta, konpromiso hori abiapuntu hartuta, zigorgabetasuneremurik ez baliatzeko eta ez sortzeko, eta diskriminazio-jardunbiderik ez eragiteko konpromisoa hartzen dugu gure gain.

Jakin badakit immigrazioaren eta euskararen arteko loturaren auziak tratamendu teoriko bat izan duela joan den hamarkadako erdialdeaz geroztik; hor izan dira Ikuspegiren azterlanak, Unesco Etxearen edo Soziolinguistika Klusterraren eta Ikuspegiren arteko ekimen partekatuak, Mario Zapataren azterlanak... eta beste hainbat erakunde eta pertsona batzuek egindakoak.

Itunean arreta jarritz, funtsezko hiru dimentsioren bidez uler daiteke biztanle atzerritarrek gehienetan bide arruntak erabiliz kokatzen direla, eta bideak jarri behar ditugula haiek integratzeko eta gizartean gora egiteko. Testuinguru horretan, atzerritarren immigrazioa ez da oztopo euskararentzat. Euskararen alde ahulenetakoren bat areagotu dezake, baina Espainiatik etorritako immigrazioa euskarara modu natural batean sartzen joan zen bezala, hori bera egingo dute gaur egun atzerritik datozen biztanleek ere, edo Euskadin jaiotako oraindik ere atzerritartzat jotzen ditugun horiek.

Hiru dimentsioak honako hauek dira:

1. Tokiko esparruari eta eguneroko integrazioari ematen zaion garrantzia.
2. Hezkuntza-sistema inklusibo bat edukitzearen garrantzia.
3. Eta, azkenik, euskara kohesioko hizkuntza dela jotzea.


ZER DA MIGRAZIORAKO EUSKAL ITUN SOZIALA?

Migraziorako Euskal Itun Soziala Immigrazioaren aldeko Itun Sozialaren eguneratzea da. Bizikidetzaren aldeko konpromiso hori 2011n hasi zen, Patxi Lopez lehendakariaren legegintzaldian; Imanol Zuberok eta Daniel Innerarity koordinatu zuten, eta hainbat arlotako adituek parte hartu zuten¹.

Testu haren helburua hirukoitza zen:

- Gizarte- eta erakunde-akordio zabal bat lortzea, gizartearen gero eta aniztasun handiagoa kudeatzeko oinarrizko printzipioen inguruan eta aukeraren ikuspegitik.

1. Xabier Aierdi, Hithem Abdulhaleem, Maya Ahrame, Amelia Barquín, Jose Angel Cuerda, Javier Galparsoro, Juana Goizueta, Abdoulay Gueye, Eloina Mayo, Lucía Martínez Odriozola, Ramón Múgica, Norma Vázquez eta Eduardo Ruiz Vieytez.



hermes



hermes



- Gizarte- eta erakunde-eragileei eskatzea immigrazioaren eta aniztasunaren inguruan konpromiso zehatzak bere gain hartzeko.
- Etorkinen etorrerak dakarren gizarte-eraldaketako prozesu handia positibotzat hartzeko mezua bidaltzea gizarte osoari.

Jatorrizko testu hark 41 puntu zituen, hamaika ataletan banatuta. Hamaika atal horiek hauexek ziren:

1. Euskal gizarte pluralagoa
2. Giza eskubideak eta herritartasun inklusiboa
3. Immigrazioa eta aniztasuna, aukera-leiho Euskadirentzat
4. Emakumeak eta immigrazioa
5. Integratzearen/txertatzearen ikuspegia
6. Narratiben eta diskurtsoen funtsezko garrantzia
7. Tokian tokiko esparruaren eta eguneroko integrazioaren garrantzia
8. Hezkuntza inklusiboa
9. Euskara, hizkuntzak eta integrazioa
10. Praktikoak ere izan nahi duen Ituna
11. Zailtasunei modu positiboan aurre egitea eta etorkizunari itxaropenarekin begiratzea

Arretaz begiratuta, hamaika atal horiek immigrazioaren eta aniztasunaren kudeaketa-esparruko jardunbideen programa osoaren hariak eta ardatzak dira praktikan.

Zalantzarik gabe, hor dauden guztiak badira, baina ez dakigu diren guztiak hor ote dauden.

GIZARTEAN ZABALTZEKO HUTS EGINDAKO BI AHALEGIN, ETA BERRESKURAKETA BAT

Ituna gizartean zabaltzeko bi ahaleginek huts egin zuten, ez zutelako politikarien babes nahikorik izan. Lehenengoa, 2012an, Patxi Lopezen gobernuarekin. Bigarrena, 2015ean, Iñigo Urkulluren lehenengo gobernuarekin.

2015ean, jatorrizko testuari atariko bat erantsi zitzaion, Itunarekin bat egiteak maila praktikoan zer esan nahi zuen azaltzeko. Atariko horrek zera zioen:

“Itunarekin bat egiteak berekin dakar haren oinarrizko printzipioen eta baloreen inguruan oinarrizko konpromiso bat nork bere gain hartzea, eta horren arabera jokatzeko, bai bakarka eta bai erakunde bezala.”

2018an **“Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan Jarduteko V. Plana”** diseinatu eta idatzi zen, Gizarte Politiketako Sailburuordetzak sustatuta, eta Ituna berreskuratu eta eguneratzeko beharra zegoela eskatu zen hainbat sektoretatik. Hala, V. Planaren 9. orrialdean zera esaten zen:

“Testuinguru horretan, ezinbestekoa da *Immigrazioaren aldeko Itun Soziala* delakoari berriz heltzea, adostasun politikoko dokumentua izan dadin eta ezar ditzan esparru honetan “jokatzeko” koordinatuak EAEko gizarte osoari begira, eta, era berean, geroago, Gernikako Estatutuaren babesean, araugintza-garapena egiteko aukera eman dezan, immigrazioari eta herritartasunari buruzko EAEko politikaren oinarriak atzerritar jatorriko pertsonen eskubideen eta betebeharren ikuspuntutik jasota, eta pertsona eta kolektiboek estaldura eta segurtasun juridikoa emanda”.

V. Planaren barneko neurri estrategikoetan, helburu hau zegoen: “diskurtso politikoa sortzea eta kulturartekotasunaren eta immigrazioaren kudeaketa birkokatzea agenda eta jardun politikoaren leku zentral eta estrategiko batean, etorkizuneko euskal gizartea eraikitzeko giltzarri moduan (Herri Proiektua)” eta helburu horren barnean, zera proposatzen zen 4.1.5 puntuan:

Euskadiko Immigrazioari buruzko Itun Soziala. Bizikidetzaren aldeko Konpromisoa berriz indartzea, parlamentuko eta indar politiko nahiz gizarte-eragile guztien kulturarteko itun bidez, joko politikoaren mugak eta arauak ezar daitezzen esparru honetan.

IKUSPEGI BERRIZTU BAT, 2019 URTEAN


2019an, 2015eko itunari **Share proposamena** gehitu zitzaion, baita printzipio etikoa ere: Migrazioari dagokionez, **jaso beharko genukeena eskaintzea** da printzipio etiko nagusia, baldin eta gu ere antzeko egoera batean suertatuko bagina.

Itun honek honako ardatzak ditu:

1. Migrazioa ez da egoeraren arabera gertakaria, baizik eta munduan, Europan eta Euskadin gertatzen den egiturazko egoera bat.
2. Etorkinek, asilo-eskatzailak, Adingabe eta Gazte Atzerritarrak (BGAA/BGGA), iragaitzazko egoeran daudenek eskubideak eta betebeharrak dituzte, eta eskubide eta betebeharrak horiek bideratu egin behar dira.
3. Etika demokratikoko dimentsioa ere badu eta etika unibertsalaren funtsezko premisetako bat da besteei ez egitea besteek geuri egiteari nahi ez duguna. Migrazioari dagokionez, jaso beharko genukeena eskaintzea da printzipio etiko nagusia, baldin eta gu ere antzeko egoera batean suertatuko bagina.
4. Migratzaileak mehatxu gisa aurkezten dituzten diskurtso indartsuak mundu osoan ari dira ugaritzen.
5. Sintoma kezagarriak agertzen dira: kanpoko zein barruko mugak modu faktikoan berrezartzen dira; errefuxiatuen eta etorkinen giza eskubideen aitortpenak atzera egiten du; gorroto diskurtsoak; adierazpen politiko-instituzional argiko xenofobia agertzen da; eta ezin da migrazio-politika erkiderik eraiki.
6. Populismo xenofoboaren mehatxua hortxe dago, eta bere burua egituratzeko eta demagogiaren bitartez barreiatzeko asmoa dauka. Migrazioarako Euskal Itun Sozialerako proposamen hau oztopoen eta aukeren testuinguru horretan dago kokatuta.
7. Bere helburuek proiektzio etiko, prebentibo eta proaktiboa dute.
 - a. Itun honen **helburu etikoa** erantzun solidario eta erantzulea sendotzea da, migratzaileen beharrezkoen dagokionez.
 - b. **Helburu prebentiboa**, berriz, zeharkako batasun sozial eta politikoa eratzea da, xenofobiaren aitzakiapean sortutako populismoen asmoak ezerezean uzteko.
 - c. Eta **helburu pragmatikoa** da migrazioaren erronkari gure gizartearen hazkunde- eta aurrerabide-prozesuaren parte gisa heltzea.

Migrazioarako Euskal Itun Sozial hau sinatzen duen pertsona, entitate eta erakunde orok ondoko abiapuntu hauek partekatzen dituzte:

A. Premisa politikoa: pluraltasuna. Dibertsitatea gure historiaren eta nortasun kolektiboaren funtsezko zatia da. Beste kultura eta jatorri



hermes



hermes



barneratuko duen euskal gizartea defendatzen dugu, kulturarteko pluraltasunaren balioekin konprometitutakoa eta herritartasun inklusiboa eraikitzen lagunduko duena.

B. Premisa etikoa: elkartasuna. Migrazioaren erronka berriak interpelazio etikoak dira, eta horrek elkartasuna, diskriminazio eza eta etorkinen zein bertokoen eskubide eta obligazioak parekatu beharra eskatzen du, eta halaxe onartzen dugu, konpromiso partekatua gisa.

C. Premisa pragmatikoa: beharrezana. Euskal gizarteak, familien babeserako politikez gain, immigrazioa behar du, lanaren eta demografiaren inguruko beharrezanean erantzun ahal izateko. Euskadiren hazkundeari dagokionez, datozen hamarkadetako immigrazioa onerako izango da, eta guk aukera gisa helduko diogu gai horri.

Hau guztia oinarri gisa hartuta, Itunak barneratzen dituen edukiak hauek dira:

1. Itun honen asmo nagusia zera da, gizarte gisa herritartasun askotariko eta inklusibo baterantz aurrera egitea. Herritartasun horri jarraiki, guztion funtsezko askatasunen, eskubideen eta betebeharren ardazta ez da izango nazionalen eta atzerritarren arteko bereizketa, guztiak ere egoiliar izatea baizik.
 - Euskadi ere beti izan da herrialde askotarikoa, historian zehar erlijio, hizkuntza eta kultura desberdinak elkarrekin bizi izan diren herrialdea. Atzerritarrek gehitutako aniztasun berriek ez dute zertan ustekabea izan euskal herritarrentzat. Aniztasuna gure historiaren eta gure identitate kolektibo propioaren zati da. Aitzitik, Euskal Herriaren esperientzia historikoa lagungarri izan beharko litzazuke elkarbizitzari erantzun hobea eta egokiagoa emateko, betiere bereizgarri izan genuen aniztasun-mailan oinarrituta.
 - Etorkinak ez dira “Gure arteko Besteak”. Izan ere, guztion artean gaurdanik eraikitzen ari garen etorkizuneko euskal “GUaren” zati dira jada. Une honetan, ‘gu’ zibiko eta gutxieneko bat da eraiki beharrekoa, zeinen eraikuntzan guztiek duten parte-hartze efektiborako eskubidea.
 - Integrazioa ezinezkoa da pertsona guztien eskubideak aitortzen eta bermatzen ez badira. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala, berdintasunaren ideala eta diskriminaziorik ezaren printzipioa ditugu abiapuntu. Eskubide eta askatasunen lege-murrizketei aurre egitea da gure apustua, berdintasunean oinarritzen diren eta aniztasuna zorrotz errespetatzen duten politika publikoak sustatuz.
2. Printzipioetan oinarritutako ikuspegi horrek ezin digu egiazko egitate bat ezkutatu, hau da, immigrazioa oso ondorio positiboak izaten ari dela jada gure gizartearentzat. Ondorio horiek neurtu eta objektibatu egin daitezke, eta ez datoz bat immigrazioaren fenomeno arazo bat baino ez dela dioten diskurtsoekin.
 - Aniztasuna aukera handia da euskal gizartearentzat. Gizarte askotarikoenak dira aberatsenak ere bai. Aniztasun horrek datozen urteetan bere potentzial guztia zabal dezala, horixe da gure erronka.
 - Lan egitera datoz etorkinak Euskadira. Immigrazioak oso ondorio ekonomiko positiboak ditu gizarte hartzaileentzat. Izan ere, biztanleria aktiboaren eta emakumeen jarduera-tasaren hazkundera bultzatzen du, zuzeneko eta zeharkako zergen eta Gizarte Segurantzako kotizazioen bidez diru-kutxa publikoetarako ekarpena egiten du, kontsumoaren hazkundera bultzatzen du eta enpresa-ekimen berriak sortzen ditu.

- Atzerriko etorkinek bertako biztanleek baino ezegonkortasun eta kalteberatasun handiagoko egoeran bizitzeko eta lan egiteko arriskua dute. Aniztasunaren aldeko apustua, egiazkoa izan dadin, guztien gizarte-eskubideak baliatzeko aukera bermatuko duten banaketa-politikak eta politika unibertsalistak behar dira.
 - Emakumeak ezkutatu egin dira migrazio-diskurtsoetan. Badira gizarte hartzaileetan sendo erroturiko estereotipo batzuk emakume etorkinak otzantasunarekin lotzen dituztenak, haien ekimen-gaitasuna eta kontrako egoeretan bizirauteko trebetasunak ukatzen dituztenak. Genero-berdintasuna funtsezko printzipioa da gure elkarbizitza ahalbidetzeko, eta milioika emakumeren borrokari esker lortu da. Printzipio ukaezina da, emakumezkoen biztanleria guztiari bermatu beharrekoa, haien jatorrizko herrialdea edozein dela ere. Berdintasun eraginkorrerako politika bat gauzatzeko, etxeko esparruko lan-merkatua kontrolatu eta arautu behar da, familia berriz elkartzeko politikak bideratu behar dira, eta euskal emakume guztiei, bertako eta etorkin, lana eta familia uztertzea ahalbidetuko dieten gizarte-politikak abian jarri behar dira.
3. Etorkinen gehiengo handi batek Euskadin geratu nahi du. Geratzeko borondate hori kontuan hartuta, gogoeta egin behar dugu indarreko ideien eta ideia horietatik ondorioztatzen diren erroldatzeko, erregularizatzeko, berrelkartzeko eta nazionalizatzeko mekanismo eta prozesuen inguruan.
- Ez da bidezkoa legeek geratzeko borondate hori ez bultzatzea eta etorkinak salbuespen-egoera batean uztea. Ikuspegi horrek argitasun-ahalegina eskatzen du administrazio guztietan, eguneroko integrazio-prozesuak *sine die* ez geroratzeko. Lege-aurreikuspenek eguneroko integrazio hori bultzatu eta babestu egin behar dute, oztoporik jarri gabe.
 - Integrazioa gizarte honetan bizi garen pertsona guztien arteko moldatze-prozesu dinamikotzat jotzen dugu, bi noranzkokoak. Gizarteratzea ez da egoera bat, prozesu sozial eta dinamikoa baizik, luze irauten duena, etengabe errepikatu eta berritu behar dena, eta errealitate berrira egokitzeko elkarren arteko esfortzua eskatzen duena, bai etorkinen aldetik, bai gizarte hartzailearen aldetik.
 - Oso garrantzitsua da immigrazio eta integrazio-politikak hauteskunde-inguruabarren mende ez geratzea, ezta parlamentuetan gertatzen diren gehiengoaren arabera gorabeherarik izatea. Itun hau sinatzen duten erakundeek konpromisoa hartzen dute alor horretan politika irmoak sustatzeko, genero-indarkeriaren aurkako borrokan edo antzekoetan atxikitakoen antzekoak, hain zuzen ere.
 - Eskolak funtsezko egitekoa du etorkizuneko euskal herritar diren etorkinen seme-alabak gizarte hartzaileira egokitzeko. Ikasle guztien ekitatea eta aukera-berdintasuna bultzatu behar du hezkuntza-sistemak, hezkuntza-ibilbidea amaitzen dutenean gizartean eta lan-merkatuan integrazteko aukera berak izan ditzaten.
 - Euskal Herrian bi hizkuntza ofizial daude. Euskal gizarteari dagokio bi hizkuntzak ikasteko eta erabiltzeko aukera ematea gurera iristen direnei. Euskara etorkinen kolektibora hurbiltzeko eta etorkinen artean sustatzeko eginkizuna antolatzerakoan, euskara sendotzeko eta euskal gizartean presentzia handiagoa izan dezan lortzeko moduari buruzko hausnarketa zabalagoa egin behar dugu. Era berean, Beste herrialdeetatik datorren biztanleriak dakizkien eta erabiltzen dituen hizkuntzak onetsi eta balioetsi beharko ditugu.



hermes





hermes



4. Immigrazioa fenomeno globala bada ere, integrazioa, gizarte-kohesioa eta elkarbizitza tokian tokiko espazioan gertatzen, kudeatzen eta bideratzen dira. Udalek irizpide komunak eta baliabide nahikoak behar dituzte lan hori modurik egokienean egiteko.

- Euskal erakundeen maila guztiak sustatzen ari dira jada etorkinen integrazioa bultzatzera bideratutako politikak eta ekimenak. Gizarte zibila ere oso proaktiboa izan da arlo horretan, eta laguntza eta harrera eskaini die pertsona iritsi berriei. Hain baliotsua eta beharrezkoa den lan horrek guztiak, joera unibertsalistako gizarte-politika batzuekin batera, neurri handi batean, agerian uzten du Euskadin zergatik ez den arazo larriak sortu immigrazioaren inguruan.
- Etorkinen integrazioaren esparruan esku hartzen duten erakunde-eragile eta gizarte-eragile ugari aukera garrantzitsuak eskaintzen dituzte eta gure erakunde eta gizarte-egituraren aberastasunaren eta aniztasunaren adierazgarri da hori. Kontrapartida gisa, eraginkortasuna lortzeko beharrezkoa da EAEko barne-esparruan integrazioari buruzko euskal politikaren erantzukizunak, rolak, eskumenak, tresnak eta baliabideak argi eta garbi definitzea. Era berean, erakunde- eta gizarte-maila guztien arteko lankidetzeta-mekanismoak definitu behar dira. Azkenik, erakunde eta gizarte-maila guztien arteko lankidetzeta-mekanismoak definitu behar dira.

5. Immigrazioarako Itun Sozial honek zentzuzko esparru bat osatzen du, printzipio eta balioen inguruko konpromiso bat, eta praktikara ere bultzatzen duen dokumentu izatera iritsi nahi du. Sinatzen duten erakundeek ahalegina egin beharko lukete bakoitzak bere esparruan printzipio eta balio horiek aplikatzeko, autoebaluaiziko elementu gisa erabilita, dagokien funtzionamendua aztertzeko immigrazioaren eta aniztasunaren gaiarekin zerikusia daukan guztian.

- Ituna sinatzen duten erakunde eta instituzioek konpromisoa hartzen dute immigrazioari buruz aurreiritzietan eta gehiegizko orokortzean oinarrituta sortu diren diskurtso estigmatzaile guztiak gogotik baztertzeko, eta, aldi berean, euskal gizarteari dei egiten diote arrazismoaren eta xenofobiaren era ireki eta sotilei aurka egiteko eta inpunitate-esparru guztiak indarrrik gabe uzteko eta salatzeke.
- Komunikabideek etengabeko prestakuntza sustatu behar dute estereotipo negatiboen erreproduzio akritikoa eta gizarteak etorkinak kriminaliza ditzala saihesteko. Arreta berezia jarri behar dute kolektibo homogeen gisa ez tratatzeko eta alor horri buruzko jardunbide egokien dekalogoak errespetatu daitezkeen konpromisoa hartzeko.
- Immigrazioa eta harekin batera doazen aniztasun berriak denon artean guretzat eta gure seme-alabentzat zer euskal gizarte nahi dugun berriz pentsatzeko aukera eta pizgarria izan behar dute. Epe laburrera begira, zailtasun-iturri izan liteke errealitate berri hau. Ez dugu hau ezkutatu behar; aitzitik, onartu eta aldateta sozialeko prozesu guztietan izaten den gauza normaltzat hartu behar dugu. Zailtasun horien adierazpideak kontuan hartu behar ditugu, modu konstruktiboan aurre egiteko eta gainditzeko. Hartzen ditugun konpromiso eta erabakiekin asmatzen badugu, etorkizun hobearen oinarriak jartzen ariko gara.

BIBLIOGRAFIA:

EUSKO JAURLARITZA. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila (2019). Migrazioarako euskal itun soziala

www.euskadi.eus/contenidos/informacion/migrazioituna/es_def/adjuntos/ITUNA.pdf (Kontsulta: 2020/05/15)



	2	0	2	0		
1	X	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31	?	?	

HİTÇEBARK
GABET!